



LEITZEKO ERASO SEXISTEN AURKAKO PROTOKOLOA

**Leitze leku seguru bat
izatea denon ardura da!**

**ERASOEN
AURKAKO
MAHAIA**

Leitzeko pestetan herri mailan jazo daitezkeen eraso sexisten aurrean, Erasoen Aurkako Mahaiak, aurreko urtean Leitzeko Mugimendu Feministak sortutako protokolo hau egokitu eta osatu du.

Dokumentu hau beste herri batzuetan urteotan egin diren hainbat protokolo eredutzat hartuta osatu zen, batez ere Gora Iruñea eta Hernaniko txozna batzordearen lanak izan dira adibide.

Pesta eredu feminista bat bultzatzeko oinarriak jasotzeaz gain, eraso sexisten aurrean eman beharreko erantzuna modu praktiko eta zehatzean azaltzea du asmoa.



Protokoloa lau ataletan banatu da:

1 |

Pesta eredu feminista bultzatzeko neurri eta baldintzak (aurre lanketatik hasi eta pesta ondoreraino)

2 |

Erasoei begira, pesten aurretik egiteko lanketa edo prebentzioa

3 |

Pestetan eraso bat gertatzen den momentuan nola jokatu

4 |

Erasoaren ondorengo erantzun soziala

* | Eranskinak



1 | Pesta eredu feminista

Gure jendarteko ordena eta bizitza erritmoak erreproduzitzen diren guneak dira pestak. Gaur egungo hierarkiak, botere harremanak, diskriminazioak, rol banaketak eta emakumezkoen eta gizonezkoen irudi idealizatuak islatzen direlarik bertan. Honengatik, garrantzitsua da pestetan ere ikuspegi feminista txertatzea eta egungo egiturazko zapalkuntza guztiei aurre egiteko lanean jardutea.

Protokolo honetan, jai herrikoi eta parekideak izateko, kontuan eduki beharreko zenbait elementu biltzen dira.

- **ERASOEN AURKAKO MAHAIA:** Leitzeko Erasoen Aurkako Mahaia herriko pestetan era batera edo bestera parte hartzen duten hainbat eragilerekin dago osatua. 2017an egindako protokoloaren baitan, pestei begira Eraso Sexisten Aurkako ekintzak planifikatzeko sortu zen. Mahai hau Leitzako udalak, Lañaidek neska* gazte taldeak, Pesta Batzordeak, Kaxkabeltza elkarteak eta herriko hainbat tabernari eta ostalariek osatzen dute.

- **PARTE HARTZEA**

- **Antolakuntzan:** nahitaezkoa da pesten antolakuntzan emakumezkoen ikuspegia kontutan hartzea eta inor ez baztertu edo alboratzea. Horretarako, ezinbestekotzat hartzen da emakumezkoak, talde moduan nahiz norbanako bezala, bertan presente egotea. Erasoen Aurkako Mahaiak aipatutakoa esparru guztietan bermatuko dela ziurtatu beharra du, eta horretarako beharrezko baldintzak sortu behar dira: bilerak egiteko moduan, hitz egiteko tonuan, hitz hartzeetan, lanen banaketan, nahiz iruditegian genero ikuspegia txertatu eta eremu segurua izanen dela bermatu behar du.

- **Programazioan:** pestetako programazioa osatzerakoan, kontuan izan behar da emakumezkoen presentzia bermatzea, kontzertuetatik hasi eta edozein lehiaketako epai-mahaiko kideetaraino. Pesta parekideak lortzeko, nahitaezkoa da hauek emakumezkoentzako plaza ere izan daitezen. Aldi berean, herriko emakume kulturagileei lekua egin behar zaie, haien lana ezagutarazteko.

- **OSAGAI EZ SEXISTAK**

- **Komunikazioan:** herriko pestak iragartzeko erabiltzen diren komunikazio bideek ezin dute eduki sexistarik izan. Ahozko nahiz idatzizko komunikazioan, komunikazio grafikoan, irudietan eta bestelakoetan sexu estereotipoak baztertu behar dira. Eredu berriak eta anitzak plazaratzeko esparrua izan behar du Erasoen Aurkako Mahaiak honetan ere.

- **Musikan:** pestetako elementu garrantzitsuenetako bat da musika. Herrian entzuten den musikak ezin du eduki sexistarik izan, eta haratago joanda, emakumeek eta feministek sortutako musika ezagutzera emateko aukera egokia da.

2 | Aurre-lanketa eta prebentzioa

Emakumezkoon aurkako indarkeriari erantzun indibidualak eman baino, kontzientzia kolektiboa garatzea ezinbestekoa da, eta horretarako beharrezkoa da sentsibilizazio eta prebentzio kanpainak aurrera eramatea. Prebentzioari dagokionez, Erasoen Aurkako Mahaiak eragile eta herritarrak protokoloaren inguruan informatukoditu, honen inguruko azalpen eta xehetasun guztiak emanez pesten aurretik. Informazio eta azalpen lan hori mugimendu feministaren eskutik egingen da, pesten aurretik eta bi plano desberdinetan:

- 1.- Tabernetako eta txoznetako arduradunei protokoloa ezagutarazi eta zalantzak argitzeko bilera bat.
- 2.- Protokoloaren berri jakin nahi duten herritarrei, honen inguruko argibideak emateko eta eraso baten aurrean nola jokatu azaltzeko bilera ireki bat.

• PREBENTZIO KANPAINA

Pestak guztiontzako espazio askea izan behar dute, eta hortaz garrantzitsua da emakumezkoek espazio seguru batean gaudela jakitea, bertan erasorik onartuko ez dela eta erasotzaileak ongi etorriak ez direla adieraztea. Horretarako, euskarri desberdinak erabiliko dira:

- Kanpora begira
 - o Kartelak.
 - o Telefono eta baliabideekin euskarri informatiboa.
 - o Pesta aurretik zabaltzeko bideoa.
 - o Erasoen aurkako kuina orokorra, musika zerrendetan sartzeko.
- Barrura begira
 - o Txozna eta tabernetarako protokoloaren eskema.
 - o Protokoloa aktibatu ondoren, mobilizazioetarako deialdia egiten denerako kartel mutuak.
 - o Alarma-kuina: kuina orokorraz gain, eraso bat ematen denean erasotzailea kanporatzeko alarma-kuina bat egonen da.
- EMAGIN elkartearen zerbitzua izango da pesta guztietan zehar. (*1.Eranskina*)
- ARRETA TELEFONOA: 617 385 598

3 | Pestetan eraso bat gertatzen denean nola jokatu

Pestetan eraso bat gertatzen denean, erantzun protokoloa aktibatzea, hasiera batean, eraso bat identifikatzen duen edozeinen ardura da. Era berean, taberna eta txoznetan txandak egiten ari diren boluntario edo langileek, eraso ikusten duten edo barran salatzen den momentuan aktibatu beharko dute protokoloa. Beti ere, Emaginek erasoaren berri izateko arreta telefonora deitu beharko da, eraso zein motatakoa izan den, non eman den eta noiz eman den informatzeko; informazio hau biktimaren anonimotasuna babestuz eman beharko da.

Eraso sexista bat gertatzen denean jarraitu beharreko pausoak ondorengoak dira. Bi ataletan banatu dira, erasoaren intentsitate mailaren arabera.

- **INTENTSITATE BAXUKO ERASOETAN**

- Erasos sexista bat ematen ari dela ikusten baduzu edo barran eraso salatzen badute, erasotuari laguntza eskaini, zure kabuz erabakirik hartu gabe.

- o Laguntza jaso nahi ez badu, ez dugu insistituko, baliabideak eskainiko zaizkio (informazio txartela).
- o Laguntza onartzen badu:

- 1.- **EGITEN ARI ZARENA UTZI:** Lehentasuna duen kontua da, beraz, barran dagoen langileak pertsona horri kasu egingo dio.

- 2.- **ENTZUN:** Arreta handiz entzun erasotzuak esateko duena (azalpena, beharrak...) eta inolaz ez jarri zalantzan kontaktzen dizuna.

- 3.- **ERASOTUARI LAGUNTZA ETA BALIABIDEAK ESKAINI:** Baliabideen eta telefono zenbakien txartela eskaini, zer behar duen galdetu...

- 4.- **ONDOREN...**

ERASOTZAILEA KANPORATU: Erasotzailearekin hitz egin, argi utziz ez dela jarrera sexistarik onartzen eta gunetik kanporatu.

- * Erasotzaileak kasurik egiten ez badu, **ALARMA KUINA JARRI** (*Erasotzailea kanporatzeko kuina), gunetik alde egin arte. Lehentasuna erasotzailea kanporatze a izango da, zerbitzatzeari uzteko aukera dago.

ERASOEN TELEFONORA DEITU EDO IDATZI: Gertatu den eraso erregistratzeko (Zer, non eta noiz gertatu den jakinarazi, erasotzuaren anonimotasuna babestuz).

- INTENTSITATE ALTUKO ERASOETAN

- 112 edo ARRETA TELEFONORA DEITU

- ERASOTUARI LAGUNTZA ESKAINI. Behar duen laguntza guztia ematen saiatu, beharko balitz berarekin geratu artatzen duten bitartean. (2. Eranskinean gako batzuk)

4 | Erasoen ondorengo erantzun soziala

Erasoen salaketak jasotzen diren heinean, Erasoen Aurkako Mahaiak erabakiko du kasu bakoitzaren aurrean erantzuna nola antolatu, hala ere, eragile eta herritarren inplikazioa eta parte hartzea ere eskatuko da hala behar denean. Dena dela, gerta daitezkeen erasoen aurrean erantzuteko zenbait modu aurrez zehaztuta, adostuta eta prestatuta daude:

i. Intentsitate baxuko erasoen kasuan

- Erantzun soziala mugimendu feministaren esku dago, baina Erasoen Aurkako Mahaiako kideei bat egiteko proposatuko zaie.
- Herrian intentsitate baxuko hiru eraso gertatzen diren egunaren biharamunean, 19tatik 19:30tara, elkarteratze isila egingen da, bitartean egitaraua geldituko da, ekitaldiak atzeratuz. Era berean, barrak, komertzioak, etab. ixteko gonbidapena luzatzen da.

ii. Intentsitate altuko erasoen kasuan

- Larrialdi mahai bat deituko da erasoak gertatu eta biharamunean, honen aurrean emango den erantzuna zehazteko. Larrialdi mahaiak udalak, berdintasun teknikariak eta mugimendu feministako kideek osatuko dute.
- Elkarretaratze isilerako deialdia egingo da plazan, baina honen deialdia Erasoen Kontrako Mahaiaren esku egongo da.
- Egitaraua bertan behera geldituko da 24 orduz, beti ere, erasotutako salaketa soziala jartzea erabakitzen bada. Geldialdi hau noiz izango den larrialdi mahaiaren zehaztuko da, eta herritarrei jakinaraziko zaie.
- Aurreko kasuan bezala, gainontzeko eragileei ere proposamena zabaltzen zaie bakoitzak bere esparrutik 24 orduko geldialdi horrekin bat egin dezan.

* | Eranskinak

1. EMAGINEN ZERBITZUA

Pesta guztietan zehar Emagin elkartearen arreta zerbitzua egongo da, modu desberdinetan.

- Salaketa eta arreta telefonoa: honen helburua jaietan gertatzen den edozein intentsitateko eraso matxista identifikatzea da; horren aurrean erasoak jasan duen pertsona beste zerbitzu batzuetara bideratu ahal izatea, egoerari aurre egiteko baliabideak eskainiz; eta, betiere egoerak hala eskatzen badu, erantzun soziala aktibatzeke kudeaketa bideratzea.
- Arreta puntua: jaietan gertatzen diren edozein intentsitateko eraso matxisten aurrean, erasoak jasan duenari aurrez aurreko nahiz telefono bidezko arreta emozionala zein bide laguntza eskaintzea eta, horri aurre egiteko dituen aukeren gaineko informazio egokia eta aholkularitza eskaintzea.
- Informazio gunea: Herritar oro indarkeria matxistaz kontzientziatzeko jai eremuan kokatutako informazio gunea da. Helburuak: emakume*, neska* gazte zein LGTBI+ fobia pairatu dezaketen pertsonen askotariko erasoaren gaineko bizipenak eta iritziak jasotzea; eraso horien gaineko informazioa zein horiei aurre egiteko tresnak eskaintzea eta eraso matxistak ez gertatzeko gizon eta mutilak ohartarazteko gunea da, prebentziorako eta erasorik gertatuko balitz, erantzuna bideratu ahal izateko.

Zerbitzuen ordutegia hau izango da:

- Abuztuaren 10, 19etatik, abuztuak 16 10etara Salaketa telefonoa aktibo egongo da, 24 orduz telefono bidezko arreta jaso dezake telefonora deitzen duen orok.
- Abuztuaren, 10,11 eta 12; 20etatik 00etara Informazio gunea jarriko da plazan.
- Abuztuaren 10, 11 eta 12; 00etatik 8etara Arreta puntua egongo da, aurrez aurreko arreta eskainiko duena. Arreta jasotzeko, arreta telefonora deitu beharko da.

Arreta telefonoa: 617 385 598

2. INTENTSITATE ALTUKO ERASOE BATEN AURREAN, NOLA JOKATU ERASOA JASAN DUENAREKIN?

Argibide eta gako batzuk (intentsitate baxuagoko erasoetan ere baliagarriak):

- Konfidentzialtasuna eskaini.
- Ahalik eta eragozpen gutxien jarri, hitz egiten utzi. Isiltasunak errespetatu. Entzute aktiboa.
- Negarrean akonpainatu.
- Lasaitasunez hitz egin momentu oro, nahiz eta beste pertsona egoera larrian egon. Lasaitasuna, erabiltzen den tonuarekin soilik transmititu daiteke; zu larritzen bazara larritasun hori besteak jasoko du.
- Enpatiaz jokatu. Ulertzen ari zarela adierazi, berak esandakoa modu laburrean bueltatu
- Sostengu emozionala eman. Bere emozioak balioztatu, sentitzen duen edozer normala dela adieraziz.
- Erruduntasun sentimendua desegiten lagundu.
- Bere erabakiak errespetatu

EGIN BEHAR EZ DENA:

- Ez eztabaidatu, ez konbentzitu, ez errua egotzi, ez gezurretan ibili, ez itxaropen faltsuak eman, ez epaitu.
- Ez sartu dinamika kodependienteetan, zure eskuhartzea adituak iristen direnean amaitzen da.
- Ez ordezkatu, ez hitz egin bere izenean.
- Ez proposatu nik egingo ez nukeen ezer. Ez gomendatu, solik informatu.

**ERASOEN
AURKAKO
MAHAIA**